

PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2025

Bilboko Ingeniaritza Eskola
(Eskolako Batzarrak onartua
2022ko ekainaren 17an)

AURKIBIDEA

	Or.
1. AURKEZPENA	1
2. METODOLOGIA	2
3. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA: AMIA	3
4. MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK	11
5. ZEHARKAKO ARDATZAK	14
6. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK	15 22
7. AGINTE KOADROA: ADIERAZLEAK, MUGAK ETA ARDURADUNAK	

1. AURKEZPENA

Bilboko Ingeniaritza Eskola (BIE/EIB) 2016an sortu zen, UPV/EHUren Bizkaiko Campusean zeuden lau eskola teknikoen bategitetik, eta gure lurralde historikoko ikastegi handienetako bat eratu zen horrela. Horregatik, funtsezkoa da ongi koordinatzea eskolaren gestioa, irakaskuntza eta ikerketa jarduerak, eta giza faktoreak oinarritzko ardatz izan behar du hor, Euskal Herriko, Estatuko eta nazioarteko erreferentziazko Ingeniaritza Eskola gisa izan behar duen maila lortze aldera.

Lehenengo Plan Estrategikoa, berrantolakuntzaren ondoren, 2017an egin zen. Eskola Batzarrak 2018ko urtarrilaren 30ean onartu zuen eta 2021. urtera arte egon zen indarrean. Beraz, orain, bigarren Plan Estrategikoaren ordua iritsi da, lau urteko iraupena ere izango duena (2022-2025).

Egoera zail bat bizi dugu, ziurgabetasuna izanik nagusi, eta egokitzeko gaitasun handi batek bakarrik lagunduko digu ataka zail hori gainditzeko. Uste dugu 2022-2025 Plan Estrategikoa lanabes ona izango dela ziurgabetasunari aurre egiteko, eta etorkizunerako eredu bat ezartzen lagunduko digu, proposa Bilboko Ingeniaritza Eskolarentzat, horren garrantzitsuak diren erronka sozialak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak gainditzeko. Horien artean daude gure apustu irmoa kalitatezko hezkuntzaren, euskararen, eleaniztasunaren, ekoizpen eta kontsumo arduratsuen eta ikerketa bultzatzearen alde.

Charles Pinto

Zuzendaria
Director
Dean
Directeur



2. METODOLOGIA

Plan Estrategiko hau landu dugu eskola barneko interes taldeek (ikasleak, AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak) eginiko gogoeta prozesu baten bidez, kontuan izanik aurreko plana, 2022-2025 urteetarako ibilbide orri berria finkatzeko.

Lantalde hauek aritu dira lanean:

1. Eskolako Ikasleen Kontseilua, ikasleen ordezkari gisa.
2. Eskolako AZP Hobekuntza Taldea, AZPko langileen izenean.
3. Eskolako Saitetako Zuzendaritzak, irakasle-ikertzaileen ordezkari gisa.

Lehenik eta behin, Zuzendaritza Taldeak gogoeta fitxa sail bat prestatu zuen, Bilboko Ingeniaritza Eskolan eragiten duten edo hurrengo urteetan eragin dezaketen Ahulguneak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak identifikatuta (AMIA, ikus dokumentu honen 3. atala).

Fitxa horiek helarazi zitzaizkien aipatutako lantaldeei, kolektibo bakoitzeko kideen artean zabal zitzaizen. Denbora epe bat igarota, ekarpenak jaso eta Zuzendaritza Taldeari bidali zitzaizkion.

Talde horrek ekarpenak aztertu zituen, hainbat bileratan, eta eztabaidagai izan ziren ere egungo egoeraren ikuspegi zabalago batetik planteatutako beste zenbait ideia eta proposamen, ahalik eta modurik orekatuenean erantzuteko interes taldeen premia eta espektatiba guztiei. Gainera, kontuan hartu da ere Eskolako Graduetako eta Masterretako Foku Taldeek, Berdintasun Batzordeak eta Euskara Batzordeak emandako informazioa.

Nabarmentzekoa da plan hau mugatzen dela eskolak jarduteko edo eragiteko gaitasuna duen arloetara, eta alde batera utzi direla erantzukizun estrategikoa eta operatiboa beste erakunde edo organismo batzuen esku dagoen arloak. Hori bai, lerrokatuta dago unibertsitate, hezkuntza, gizarte edo enplegu mailan indarrean dauden politika eta plan instituzionalekin.

3. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA: AMIA

Bilboko Ingeniaritza Eskolaren gaur egungo egoeraren diagnostikoa egiteko, AMIA analisi bat egin dugu (testuinguru analisia). Era horretako analisiek aztertzen dituzte erakunde baten ahulguneak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak, bi ikuspuntutatik:

Barne analisia: aztertzen dira eskolaren balioak, ezagutzak, alderdi teknologikoak eta lehiakorak, eta eskolaren jarduera bera, barrutik (ahulguneak eta indarguneak).

Kanpo analisia: barne hartzen ditu alderdi juridikoak, kulturalak, sozialak eta ekonomikoak, bai eta eskolaren interes taldeen beharrak eta espektatibak ere, kanpotik ikusiak (mehatxuak eta aukerak).

Ikus AMIA analisiaren eskema hurrengo irudian:

Barne analisia

Ahulguneak: Eskolan eragiten duten barne faktore negatiboak, trabak haren funtzionamendu egokirako.

Indarguneak: Eskola bereizten duten barne faktore positiboak, laguntza handikoak izan daitezkeenak haren helburuak betetzeko.

Kanpo analisia

Mehatxuak: Eskolatik *kanpoko* faktore negatiboak, traba izan daitezkeenak haren martxa egokirako.

Aukerak: Eskolatik *kanpoko* faktore positiboak, behin identifikatuta hobetzeko aprobetxa daitezkeenak.

1. irudia: AMIA baten eskema.

Iturria: Geuk egina, kontsultatutako bibliografian oinarrituta.

Eskola barneko interes taldeen gogoetari esker, ondoren azaltzen den AMIA analisia egin da.

3.1. Barne analisia

INDARGUNEAK

1. Eskolako kideen inplikazio handia kanpoko ziurtagiriak lortu eta mantentzeko (ISO, EUR-ACE, IMAREST, EKOSCAN, etab.), prest daudenak eskolaren gestioan laguntzeko (Batzarra, Batzordeak, hobekuntza taldeak, etab.).
2. Mugikortasun plazen eskaintza handia, bai eta atzerriko unibertsitateekin eginiko hitzarmen kopuru handia ere.
3. Ikerketaren eta industria sarerako transferentziaren maila handia.
4. Ezagutza transferentzia handia ikerketaren eta irakaskuntzaren artean.
5. Docentiaz programan akreditatutako irakasle ehuneko handia.
6. Eskolaren prestigio handia gizartean.
7. Gradu eta master eskaintza zabala.
8. Harreman ona unibertsitate kolaboratzaileekin Estatuko eta nazioarteko mugikortasunean.
9. Harreman ona elkargo profesionalekin.
10. Harreman ona zuzendaritzaren, irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen artean.
11. Ikasleen gogobetetzea jasotzen duten irakaskuntzarekin.
12. Ikasleen gogobetetzea mugikortasun programekin.
13. Egresatuen gogobetetzea jasotako prestakuntzarekin.
14. Kalitate eta berrikuntza akademikoa, IKD berezko hezkuntza ereduari eta Docentiaz eta beste programa batzuei esker.
15. Irakaskuntzarako, ikerketarako eta gestiorako azpiegitura eta instalazio egokiak.
16. Enplegu tasa handia, ikasitakoari zuzenean lotua.
17. Ikerketa maila handia, nazioartekotze maila handiarekin, eta azpiegitura egokiak, mesede egiten dietenak enpresa munduarekiko harreman zientifiko eta teknologikoei.
18. Ikertalde kopuru handia.
19. Akreditatutako euskara profila duen AZPko langile kopuru handia.
20. Argitalpen kopuru handia aldizkari espezializatuetan.
21. Lotura estua enpresa munduarekin eta tokiko erakundeekin.
22. Harreman estua DBH ikastetxeekin.
23. PBL proiektuak, zeharkako gaitasunak indartzeko.
24. Nazioartean aitortutako kalitate zigiluak: ISO, EUR-ACE, IMAREST, EKOSCAN eta AUDIT.

25. Ebaluazio epaimahai arruntak.
26. Eskolaren Komunikazio Plana.
27. Kalitatezko prestakuntza, bai graduatan bai masterretan.
28. Irakaskuntza-enpresa harreman sendoa: praktikak enpresetan, Enpresa Gelak, Enplegu eta Enpresen Aurkezpen Jardunaldiak, Enpresa Mintegiak, Prestakuntza dualeko ibilbideak, etab.
29. Eskolaren inplikazioa garapen jasangarrian, gizarte konpromisoan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean.
30. Eskolako langile berrientzako jardunaldia eta ikasle berrientzako jardunaldia, azken horiek oso ongi baloratuak.
31. Aitortza Jardunaldia (Kalitatea Bultzatzeko Jardunaldian).
32. Irakaskuntza planifikatzeko eta eguneratzeko mekanismo finkatuak, webean ikusgarri.
33. Ikasle guztiei buruzko informazioa lortzeko mekanismoak (gelako ordezkariak, Ikasleen Kontseilua, Gradu eta Masterretako Foku Taldeak), eta ikasleen partaidetza aktiboa gobernu organoetan.
34. Koordinazio horizontal eta bertikalerako mekanismo sendoak titulu bakoitzeko irakasgaien artean, aukera ematen dutenak irakasgai, ikasturte eta tituluen programen jarraipena egin eta horiek betetzeko.
35. Eskolan lan egitearen harrotasuna.
36. Etengabe eguneratzen den web orria.
37. Eskolaren Autobabeserako Planak, larrialdietako simulakroak barne.
38. Irakasle-ikertzaile doktoreen ehuneko handia, lanaldi osoko kontratuarekin.
39. Administrazio izapide kopuru oso handi bat online egiteko aukera.
40. Enpresa sariak GRAL/MAL onenari.
41. Eskolaren presentzia gizartean (Formula Student, Moto Student, BiskyTeam, Saltillo, etab.).
42. Ikasleak erakartzeko prozesu sendoa, Ateak Zabaltzeko Egunen, batxilergoko ikasleentzako jarduera praktikoen, DBHko ikastetxeetako hitzaldien eta abarren bidez.
43. Espezialitateei eta ibilbideei buruzko orientazio programa finkatuak.
44. Nazioarteko gradu bikoitzeko programak.
45. Ikerketan laguntzeko teknikarien sarea.
46. Informazio bilerak mugikortasun programetan dauden ikasleekin.

47. Informazio bilerak ikasleekin, Enpresarekiko Harremanen Programei buruz.
48. Eskaera handiko tituluak.
49. Eskolaren kokapen ezin hobea.
50. IKTen erabilera zabala irakats lanetan.

AHULGUNEAK

1. COVID-19ak eragindako isolamendua.
2. Abandonu tasa handia titulu jakin batzuetan.
3. AZPko langileen behin-behinekotasun/bitartekotasun/mugikortasun handia.
4. Jangelen edukiera txikia.
5. Titulu batzuen eskaera txikia.
6. AZPko langile kopuru txikia irakasle-ikertzaile kopuruari dagokionez, azken horien administrazio eta gestio lanak geldotu eta irakaskuntzaren eta ikerketaren eraginkortasuna eragozten duena.
7. Eskolako kide izatearen sentimendu apala ikasleen, irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen artean.
8. Lan egutegiak eta ordutegi jakin batzuk nekez bateragarriak familia kontzilioarekin.
9. Genero desorekak: emakume % txikia ikasleen eta irakasle-ikertzaileen artean, eta gizon % txikia AZPko langileen artean.
10. Desorekak eskolako hiru eraikinen azpiegituren artean. Kasu batzuetan, espazioen banaketa desegokia eta elementu zaharkituak, bai azpiegiturretan bai altzarietan (aulkiak, adibidez).
11. Informatika baliabide batzuk berritzeko eta eguneratzeko beharra (hardware y software), lana modu egokian egiteko.
12. Euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeko zailtasuna.
13. Desorekak ikerketa arloen artean: arlo batzuetan, ikerketa maila txikia.
14. Plantillaren zahartzea.
15. Eskolaren eragin txikia enpresa politiketan (industria).
16. Unibertsitate bizitza eskasa eskolan.
17. Eskolak bere langileei aitortza handiagoa egiteko beharra.
18. Komun batzuk minusbaliatuen premietara egokitu beharra I. eraikinean.
19. Estrategia zehatzen falta jasangarritasunaren eta gizarte erantzukizunaren gaia zeharka sartzeko prestakuntzaren eta ikerketaren barruan.
20. Ikasleen eta irakasle-ikertzaileen inplikazio falta eskolaren gobernu organoetan.
21. Matrikula kopuru txikia titulu batzuetan.



22. Ingelesezko eta beste hizkuntza ez-ofizial batzuetako eskaintza hobetu daiteke.
23. Prestakuntza eskaintza ez da oso erakargarria ikasketa plan batzuetan, eta gradu bikoitzen eskaintza falta.
24. Irakasle-ikertzaileen lan egonkortasun apala.
25. Komunikazio Plana hobetu daiteke, eskola barruko komunikazioa errazteko, informazioaren transmisioa hobetze aldera.
26. Errendimendu akademiko txikia eta abandonu kopuru handia titulu batzuen lehen mailan.
27. Ikasleek tituluz aldatzea.
28. Eskolaren weba hobetu daiteke.

3.2. Kanpo analisia

MEHATXUAK

1. Mehatxua eta ahulgunea: UPV/EHUK dio ingelesezko talde gehiago nahi dituela, baina ez du irakasle gehiago kontratatzen.
2. Irakasle-ikertzaileek gero eta administrazio lan gehiago, kaltegarri irakaskuntzarentzat eta ikerketarentzat.
3. Gorakada nabarmena arrazoi ekonomikoetan, sozialetan eta genero arazoietan oinarrituriko desoreketan.
4. Graduondoko prozesuen automatizazio txikia eta, ondorioz, langile kopuru handiago baten beharra.
5. Lehia lurraldeko unibertsitateen eta ikastegien artean, gradu eta masterretako tituluen eskaintzan.
6. Beste unibertsitate batzuetako egresatuen lehia.
7. Hainbat egoerak eragindako krisi ekonomikoak.
8. Desoreka ikasle potentzialen maila akademikoan.
9. Desoreka eskolaren titulueta egresatuen aitortzaren (balorazioa) eta ordainsarien artean.
10. Desoreka eskolaren irakaskuntza beharren eta AZPko langileen ordutegi ofizialen artean.
11. Desoreka prestakuntza eskaintzaren eta enpresa sareak, elkarteek eta sektoreko klusterrek dituzten beharren artean.
12. Jaitsiera demografikoa.
13. Gizarteak ez jakitea zer diren unibertsitate graduak eta masterrak.
14. Zailtasunak baja medikoengatik ordezkapenetan, karguengatik murrizketetan eta abarretan.

15. Ikertalde asko baliabide berengatik lehian.
16. Talentua atxikitzeko eskaintza eskasa.
17. Ikasketa eskaintza askotarikoa eta malgua beste ikastegi eta unibertsitate batzuetan, online modalitatearekin, hizkuntza ez-ofizialetako eskaintza zabalarekin eta ikasleek erabiltzeko punta-puntako ekipamenduekin. Ondorioz, eskolaren kokapen ona ez da faktore erabakigarria.
18. Kontrolik ez UPV/EHUk kontratatutako zenbait zerbitzutan; hala nola 1. eta 2. eraikinetako garbiketa zerbitzuetan.
19. Koordinaziorik ez sailen artean, irakaskuntza eta ikerketa hobetzeko.
20. Koordinaziorik ez beste erakunde batzuekin, zamalanerako guneak hobetzeko Bilboko 1. eta 2. eraikinetan.
21. Ikerketan laguntzeko teknikarien falta, bai eta hiru eraikinak mantentzeko ere.
22. Gizartearen aitortzarik eza prestakuntza zientifikoari eta teknologikoari, ikertzaileen lanari eta gizarteak aurrera egin dezan ikerketak duen garrantziari.
23. Zientzia eta teknologia bokaziorik eza, bereziki emakumeen artean.
24. Administrazio Publikoaren finantzaketa eskasa eskolaren jarduerari eusteko eta proiektu berriak hasteko, bai eta eskolako ikertalde guztien zeregina bermatzeko ere.
25. Ziurgabetasuna COVID-19aren pandemiaren ondoren.
26. UPV/EHUren prestakuntza eskaintza urria bere kideentzat (irakasle-ikertzaileak + AZPko langileak).
27. Geldotasuna eta malgutasunik eza ikasketa plan berriak ezartzean.
28. Teknologia berriak gaizki erabiltzea: erabilera desegokia eta ez oso etikoa.
29. Langileen politika egokia oztopatzen duen lege eta finantza esparrua (birjarpen eta erakartze tasa, talentuaren babesa, plantillak handitzea, sustapen profesionala, etab.).
30. UPV/EHUren araudi desberdintasunak, graduako eta masterreko tituluen artean.
31. Gure gradu eta masterrei dagozkien lanbideen erakargarritasun eta aitortza galera.
32. Irakasle/ikasle ratio txikiegia, metodologia aktiboak erabiltzeko eta titulu batzuetan jarraipen pertsonalizatua egiteko.
33. Hobetu daitezkeen zerbitzuak: 3 kafetegietatik 2 itxita daude eta ez dago argitalpen zerbitzurik Portugaleteko eraikinean.
34. Haurtzaindegirik ez, ez Bilbon ez Portugaleten.

35. Ez berdegunerik ez kirol instalaziorik 1. eta 2. eraikinetan.
36. Irakasle-ikertzaileek eginiko ikerketa, irakaskuntza eta gestio lanen balorazio desegokia.
37. AZPko langileen zereginen balorazio desegokia.

AUKERAK

1. Tituluen eskaintza eguneratzea eta inguruko beharretara egokitzea.
2. Eskolaren erakargarritasuna, kokapenagatik eta ospeagatik.
3. Gradu bikoitzen, prestakuntza dualaren eta ingelesezko titulazioen eskaintza areagotzea.
4. **Incoming** ikasleen kopurua handitzea (gaztelania, ingelesa).
5. Euskaraz dakitenen gorakada nabarmena gazteen artean.
6. Egresatuen eta eskolaren arteko lotura gero eta estuagoa.
7. Elkarlana UPV/EHUko kide anitzeko organoekin.
8. Metodologia berrien eta ohiko metodologiaren arteko konbinazioa, eta prozesu presentzialen eta online prozesuen aldebereotasuna.
9. Etengabeko prestakuntzaren eskari gero eta handiagoa.
10. Beste I+G+b agente batzuekin elkarlanean aritzeko eredu berrien garapena.
11. Irakaskuntza eta pedagogia metodologia berrien garapena.
12. Ezohiko finantzaketa: Next Generation EU/EuskadiNext.
13. Ikasleen interesa UPV/EHUren gradu bikoitzekiko eta nazioarteko titulazio bikoitzekiko.
14. Enpresa sarearen, elkarleen eta sektoreko klusterren interesa prestakuntza praktikoarekiko eta zeharkako gaitasunen garapenarekiko.
15. Gure tituluen kualifikazio profesional handiagoa itsas eremu profesionalean, beste ikastegi batzuekin alderatuz gero.
16. Ikertzaileen lanaren eta ikerketaren garrantziaren aitortza handiagoa, gizarteak aurrera egin dezan.
17. Enpresa sarearen eta ingurune sozioekonomikoaren premia prestakuntza teknologikoa eta GJH prestakuntza (2030 Agenda) jasotzeko.
18. Pertsonen arteko komunikazio modu berriak irakaskuntza ingurunean, teknologia berriei esker.
19. Irakaskuntza metodologia berriak, online tresnei esker.
20. Eusko Jaurlaritzaren politikak, enpresarekiko harremanak, ikerketa bikaina, euskararen erabilera, prestakuntzaren

nazioartekotzea, genero berdintasuna eta jasangarritasuna sustatzeko.

21. Beste lurralde batzuetako ikasleak erakartzeko aukera.
22. Tokiko erakundeen sentsibiltatea eskolan garatutako proiektuak sustatzeko eta ikusarazteko.
23. Europako erakundeen eta sareen sentsibiltatea mugikortasuna eta lankidetzaren sustatuko dituzten irakaskuntza eta ikerketa egitasmoak bultzatzeko.
24. Eraldaketa teknologikoa, ingurune teknologiko berriari behar bezala erantzuteko gai izango diren profil profesional berriak eskatzen dituena.

AMIA honetan ez dira sartu eskolak ebatzi ezin dituen gaiei buruzko iritziak; hala nola langileen kontratazioa edo GAUR gestio akademikoko tresnan aurkitutako akatsak. UPV/EHUko organo nagusien ardura dira.

Era berean, enuntziatu bakarrean bildu dira hainbat interes taldeetatik zetozen antzeko iritziak.

Informazio horrekin guztiarekin, Zuzendaritza Taldeak landu ditu 2022-2025 Plan Estrategikoren Misioa, Ikuspegia eta Balioak, bai eta zehaztu ere bere aginte koadro estrategikoa eratzen duten ardatzak, helburuak, ekintzak eta adierazleak.

4. MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

4.1. MISIOA

Misioak deskribatzen du erakundearen helburu nagusia edo izateko arrazoia, interes taldeek berretsitakoa.

Bilboko Ingeniaritza Eskola da UPV/EHUren ikastegi eta ikergune bat, eta misiotzat du ingeniartzako profesionalak prestatzeko ezagutzak sortzea eta transmititzea, enpresaren, zientziaren eta ikasketen esparruetan behar bezala aritzeko gaitasunak izango dituzten profesionalak.

Ingeniaritza Eskolaren konpromisoa da bultzada ematea bere ingurune ekonomiko, sozial eta laboralari, irizpide jakin batzuen arabera: kalitatea, gizarte erantzukizuna, garapen jasangarria eta irekitasuna.

4.2. IKUSPEGIA

Ikuspegiak azaltzen du zer lortzea espero den Plan Estrategiko honen indarraldia amaitzean.

Bilboko Ingeniaritza Eskolak espero du 2025ean:

1. **Ikasleek** eskola ikastegi bikain gisa aitortzea, haren irakaskuntza eskaintzaren kalitateagatik eta aniztasunagatik.
2. **Unibertsitateko kideek** eskola erreferentzia ikastegi gisa aitortzea, haren kalitateagatik eta etengabeko hobetzeko espirtuagatik.
3. **Nazioarteko komunitateak** eskola erreferentzia ikastegitzat hartzea, irakaskuntzen kalitateagatik.
4. **Enplegataileek** eskola erreferentzia ikastegitzat hartzea, egresatuei eman dien prestakuntzagatik.
5. **Gizarteak** eskola ospe handiko unibertsitate ikastegitzat hartzea.

4.3. BALIOAK

Balioek azaltzen dituzte erakundearen barne jokabidea eta kanpo munduarekiko harremana gidatzen dituzten filosofia edo printzipio operatiboak.

Eragiten dute norbanakoen eta taldeen portaeran, eta jarraibide orokor gisa balio dute, egoera guztietan.

Bi motatako balioak daude: balio instituzionalak, ikastegia gidatzen dutenak, entitateak, erantzukizuna eta nortasun propioa dituen subjektu gisa, eta balio pertsonalak, bertan lan egiten duten pertsonen portaerak markatzen dituztenak.

a. Balio instituzionalak

Bilboko Ingeniaritza Eskola da:

- **Ikaslea ardatz** duen ikastegia: ahalegintzen da erantzuten egungo eta etorkizuneko ikasleen beharrei eta itzaropenei, unibertsitate aurreko ikasketetatik hasi eta unibertsitate etapa amaitu arte.
- **Nazioartekoa eta dinamikoa**: prest dago elkarlanean aritzeko unibertsitate, teknologia, ikerketa eta enpresa erakundeekin, Estatukoak zein nazioartekoak, malgutasunez eta une eta ingurune bakoitzeko egoera edo baldintzetara egokitzeko gaitasunarekin.
- **Sozialki eta korporatiboki arduratsua**: etikoki konprometitua dago garapen jasangarriarekin, gizarte ongizatearekin eta erakunde gisa duen prestigioa hobetzearekin.
- **Irekia eta plurala**: etikoki konprometitua dago pertsonen aukera berdintasunarekin, aniztasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin.
- **Eleaniztuna eta konprometitua euskararen sustapenarekin eta erabilerarekin**: bultzada ematen dio atzerriko hizkuntzak ikasteari eta erabiltzeari, bai eta euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeari ere.
- **Efikaza eta efizientea baliabideen gestioan**: emaitza bikainak bilatzen ditu, dituen baliabide publiko eta pribatuen erabilera optimizatuta.

- **Parte-hartzailea eta elkarrizketaren aldekoa:** laguntzeko prest dago, interesatzen zaizkion gaiak lantzen dituzten egitasmo, proiektu edo taldeetan, bere jakintza, iritzia eta esperientzia emanez, espiritu eraikitzailez eta adostasunez.
- **Berritzailea eta etengabe hobetzeko borondatea duena:** saiatzen da sortzailea eta abangoardista izaten, jardun eremu guztietan -irakaskuntza, ikerketa eta gestioa-, bai eta emaitzak etengabe hobetzen ere.

b. Balio pertsonalak

Bilboko Ingeniaritza Eskolako kide garenok balio hauek ditugu gure lanean:

- **Konpromiso eta jokabide etikoa:** eman dizkiguten betebeharrak betetzen ditugu, arauak errespetatuz.
- **Erantzukizuna:** erabakiak kontzienteki hartzen ditugu, ondorioak gure gain hartzen ditugu eta dagokionaren aurrean erantzuten dugu.
- **Emaitzetara eta eraginkortasunera bideratua:** asmo handiko helburuak ezartzen ditugu eta horiek lortzeko ahalegin osoa egiten dugu.
- **Profesionaltasuna eta etengabeko prestakuntza:** ahalegintzen gara gure lanbidea bikain betetzen eta gure gaitasunak etengabe hobetzen.
- **Jasangarritasuna eta efizientzia baliabideak erabiltzean:** saiatzen gara baliabideak era jasangarrian eta arduratsuan erabiltzen, hiru printzipio nagusitan oinarrituta: Murriztea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea.
- **Talde lana:** elkarlanean aritu nahi dugu beste pertsona batzuekin, elkarri lagundu, eta sinergiak bilatzen ditugu, denonak diren helburuak betetzeko.
- **Genero berdintasuna:** gure xedea da pertsona guztiek baldintza, aukera eta tratamendu berberak izatea, eta genero diskriminazioaren aurka gaude.

- **Erakunde entzutetsu bateko kide izatearen kontzientzia eta harrotasuna:** errespetu osoa zor diogu erakundeari, eta haren ospea egunez egun hobetzeko betebeharra dugu.

5. ZEHARKAKO ARDATZAK

Ziurgabetasun handiko garai honi aurre egiteko, egokitzat jo dugu bat egitea UPV/EHUren Plan Estrategikoaren Oinarrietan zehaztutako zeharkako ardatzekin, 2021eko azaroaren 25eko Klaustroan onartutako oinarriak. Honako hauek dira:

- 1. Nazioartekotzea**
- 2. Eraldaketa digitala**
- 3. Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)**
- 4. Komunikazioa**

Zeharkako ardatz horiek eragiten diete eskolaren Ardatz Estrategikoei, eta aukera ematen digute definitzeko horietako bakoitzerako helburuak, ekintzak eta adierazleak.

6. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

Lehen aipaturiko ikuspegiaren arabera planteatutako helburuak betetzeko, eskolak aktibatu egingo du bost ardatz estrategikoren (AE) arabera multzokatutako neurri sail bat:

6.1. Prestakuntza

6.2. Ikerketa eta Transferentzia

6.3. Kultura eta Gizartea

6.4. Pertsonak

6.5. Gobernantza eta Baliabideak

Ardatz horien inguruan bildu ditugu lantalde guztiek jaso dituzten iritziei erantzuten saiatuko diren helburuak, ekintzak eta adierazleak.

6.1. AE1: PRESTAKUNTZA

Gure ikasleei prestakuntza gero eta hobe ematea da eskolaren helburu eta izateko arrazoi behinena. Horretarako, helburu hauek finkatu ditugu.

Helburuak	Adierazleak	Ekintzak
HE01. Unibertsitate aurreko ikasleak erakartzea.	1. Prestakuntza eskaintza aurkezteko ekintza kopurua [ikastegia]	EE01. Informazio guztia ematea unibertsitate aurreko ikasleei eskolako graduei buruz.

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

HE02. Ikasleak erakartzea graduondokoetara.	2. Eskolak eginiko ekintza kopurua masterrei buruzko informazioa zabaltzeko [ikastegia].	EE02. Informazio guztia ematea graduko ikasleei eskolako graduondokoei buruz.
HE03. Ikasleen prestakuntza indartzea eta emaitza akademikoak hobetzea.	3. DOCENTIAZ bidez ebaluatutako irakasle-ikertzaileen % [ikastegia]. 4. Eskolari loturiko Laborategia IKD i3 Berrikuntza Proiektu kopurua [ikastegia]. 5. Ikasleak dituen foku talde kopurua [graduak eta masterrak, ikastegia]. 6. Arrakasta tasa [graduak eta masterrak, UPV/EHU].	EE03. Metodologia berritzaileen erabilera indartzea irakaskuntza/ikaskuntza prozesuetan. EE04. Gogoeta egitea Foku Taldeek eta Ikasleen Kontseiluak emandako informazioari buruz, hobekuntzak egiteko.
HE04. Enpresen parte-hartzea indartzea ikasleen prestakuntzan.	7. [Curriculum praktikak: Practicum]: Programaren balorazio orokorra (enpresen inkesta) [graduak, ikastegia]. 8. [Curriculumetik kanpoko praktikak: Hezkuntza Lankidetz]: Praktiketako enplegataileen gogobetetze globalaren indizea [ikastegia]. 9. Enpresa kopurua Enplegua eta Enpresak Aurkezteko Jardunaldian [ikastegia].	EE05. Bultzada eskola/enpresa lankidetzari eta trukeari, aliantzak egiteko eta sinergia berriak ezartzeko.

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

<p>HE05. Nazioartekotzea indartzea ikasleen prestakuntzan.</p>	<p>10. Etorritako ikasleak, guztira [graduak eta masterrak, UPV/EHU].</p> <p>11. Bidalitako ikasleak, guztira [graduak eta masterrak, UPV/EHU].</p> <p>12. Eskolak ingelesez emateko akreditatutako irakasle-ikertzaile kopurua [ikastegia]</p> <p>13. Ingelesez eskainitako kreditu kopurua [ikastegia].</p>	<p>EE06. Bultzada ematea Estatuko eta atzerriko beste unibertsitate batzuekiko harremani.</p>
<p>HE06. Urratsak egitea irakaskuntza eskaintzaren euskalduntzean.</p>	<p>14. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan euskara hutsez eginiko aurkezpenen % (alde batera utzirik elebidunak).</p> <p>15. Euskaraz eginiko GRAL eta MALen % [ikastegia].</p>	<p>EE07. Euskarazko prestakuntza eskaintza areagotzea.</p>

6.2. AE2: IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Sailak eta ikertaldeak badira ere ikerketa zuzenean gestionatzen dutenak, eskolarentzat garrantzitsua da ikerketaren gestioa eta instalazio hornidura erraztea, bai eta emaitzak transferitzea ere unibertsitateko kideei eta, oro har, gizarteari.

Helburuak	Adierazleak	Ekintzak
HE07. Eskolan eginiko ikerketa babestea.	16. Ikastegiko lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktoreen % [UPV/EHU]. 17. Seiurteko kopurua [graduak eta masterrak, UPV/EHU]. 18. Enpresa Gela kopurua [ikastegia]. 19. Eskolan egoitza duen ikertalde kopurua [Ikastegia, ikus: https://www.ehu.eus/es/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/investigación].	EE08. Eskolako irakasle-ikertzaileak sustatzea, aitortutako ikerketa tarteari lortzeko. EE09. Eskolan eginiko ikerketa bultzatzea, bai Enpresa Geletan bai Sailetan eginikoa (ikastegia).
HE08. Eskolako ikertaldeek eginiko ikerketen emaitzak zabaltzea.	20. Hedabideetan informazio positiboa duen argitalpen kopurua [ikastegia].	EE10. Eskolaren irudia eta haren ikerketa ildoak zabaltzea.

6.3. AE3: KULTURA ETA GIZARTEA

Bilboko Ingeniaritza Eskolak zeregin garrantzitsua du gizartean, jakintza sortzaile eta ikerketaren eta aurrerapen teknologikoaren sustatzaile den aldetik, ahaztu gabe Garapen Jasangarriaren Helburu (GJH) garrantzitsuak. Horregatik, funtsezkoa da indartzea Eskolak gizartean duen presentzia, kontuan izanik gure inguruko errealitatea.

Helburuak	Adierazleak	Ekintzak
HE09. Bultzada ematea jakintza sortzeari eta transferitzeari.	21. Ikasleen Kontseiluak eta Ikasleen Elkarteek eskolan antolatutako jarduera ez-akademiko kopurua [ikastegia] 22. Web orriaren bisita kopurua [ikastegia].	EE11. Eskolako ikasleen prestakuntza osagarrian laguntzea. EE12. Eskolaren proiektio soziala sustatzea eta web orria hobetzea, kanporantz transmititzen den irudia indartuta.
HE10. Erreferentzia eredu indartzea, genero berdintasunaren, inklusioaren eta garapen jasangarriaren alorretan.	23. Material kontsumoari loturiko ingurumen helburuen betetze mailaren % [ikastegia]. 24. Baliabide kontsumoari loturiko ingurumen helburuen betetze mailaren % [ikastegia].	EE13. Garapen Jasangarriaren inguruko egitasmoak sustatzea. EE14. Genero berdintasuna bultzatzea, bat etorritik UPV/EHUren Berdintasun Planarekin.

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

	25. Genero berdintasunari begira eskolan eginiko ekintza kopurua [ikastegia].	
--	--	--

6.4. AE4: PERTSONAK

Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasleak, AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak oinarritzkoak direnez finkatutako helburuak betetzeko, funtsezkoa da haien gogobetetze maila hobetzea, haien prestakuntza zaintzea eta komunikaziorako eta parte hartzeko bide eraginkorrak ezartzea.

Helburuak	Adierazleak	Ekintzak
11HE. Ikasleak, AZPko langileak eta irakasle-ikertzaileak bultzatzea eskolako jardueretan parte hartzera.	26. Eskolaren Komunikazio Planaren berrikuspen kopurua [ikastegia]. 27. Eskolako ikasleei, AZPko langileei eta irakasle-ikertzaileei eginiko inkesta mota kopurura [ikastegia].	EE15. Komunikazio eta partaidetza kanal eraginkorrak ezartzea ikasleentzat, AZPko langileentzat eta irakasle-ikertzaileentzat. EE16. Eskolaren Komunikazio Plana hobetzea.
HE12. Eskolako ikasleen, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen harrera eta aitortza hobetzea.	28. Ikasle berrien harrera programarekiko gogobetetze maila [ikastegia]. 29. Eskolako AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen aitortza ekitaldi kopurua: AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen Harrera Jardunaldia, Kalitatea Aitortzeko eta Bultzatzeko Jardunaldia, eta erretiratuei eta 25 urte daramatzatenei eginiko omenaldiak [ikastegia].	EE17. Ikasleen, AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen harrera eta aitortza protokoloak berrikustea.

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

6.5. AE5: GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

Ardatz honek zehazten ditu eskolaren gestio sistema hobetzeko jardun ildoak, baliabideen erabilera optimizatuz. Ildo horien artean, nabarmentzekoa da euskara lan hizkuntza gisa sustatzea.

Helburuak	Adierazleak	Ekintzak
HE13. Urratsak egitea Gestio Aurreratuko Sistema baten ezarpenean.	30. Etengabeko hobekuntzarako "ikasleak/AZP/IRI" lantalde mistoen kopurua [ikastegia].	EE18. Ikastegiaren Gestio Sistema hobetzea.
HE14. Hobeto erabiltzea eskolaren azpiegiturak eta instalazioak.	31. Urtean eginiko simulakro kopurua [ikastegia].	EE19. Eskolaren hiru eraikinetako espazioen berrantolakuntza amaitzea. EE20. Eskolaren Autobabes Plana indartzea.
HE15. Euskarazko komunikazioa indartzea.	32. Eskolarentzat Bikain ziurtagiria lortzea [ikastegia].	EE21. Komunikazioa bi hizkuntza ofizialetan sustatzea, pertsonen arteko harremanetan eta kanpo komunikazioan. EE22. Euskara lan hizkuntza gisa bultzatzea.

7. AGINTE KOADROA: ADIERAZLEAK, MUGAK ETA ARDURADUNAK

Aginte koadro honek biltzen ditu adierazleen mugak, bai eta horietako bakoitzaren 2022-2025 aldirako arduradunak ere.

7.1. AE1: PRESTAKUNTZA

Adierazleak	Mugak	Arduradunak
1. Prestakuntza eskaintza aurkezteko ekintza kopurua [ikastegia]	Goi muga: 90.0 Behe muga: 40.0	Ikasleen Zuzendariordetza
2. Eskolaren ekintza kopurua masterrei buruzko informazioa zabaltzeko [ikastegia].	Goi muga: 10 Behe muga: 5	Ikasleen Zuzendariordetza / Graduondokoaren Koordinazio Zuzendariordetza
3. DOCENTIAZ bidez ebaluatutako irakasle-ikertzaileen % [ikastegia].	Goi muga: 65.0 Behe muga: 50.0	Kalitate Zuzendariordetza
4. Eskolari loturiko <i>IKD i3 Laborategia Berrikuntza Proiektu</i> kopurua [ikastegia]	Goi muga: 5.0 Behe muga: 1.0	Kalitate Zuzendariordetza
5. Ikasleak dituen foku talde kopurua [graduak eta masterrak, ikastegia].	G: Goi muga: 12.0 G: Behe muga: 0.0 M: Goi muga: 18.0 M: Behe muga: 0.0	Ikasleen Zuzendariordetza / Graduondokoaren Koordinazio Zuzendariordetza
6. Arrakasta tasa [graduak eta masterrak, UPV/EHU].	G: Goi muga: 85.0 G: Behe muga: 70.0 M: Goi muga: 98.0	Akademia Antolakuntzako Zuzendariordetza

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

	M: Behe muga: 95.0	(Graduak) / Graduondokoaren Koordinazio Zuzendariorde
7. [Curriculum praktikak: Practicum]: Programaren balorazio orokorra (enpresen inkestak) [graduak, ikastegia].	Goi muga: 5.0 Behe muga: 4.0	Enpresarekiko Harremanen Zuzendariorde
8. [Curriculumetik kanpoko praktikak: Hezkuntza Lankidetzak]: Praktiketako enplegatzaileen gogobetetze globalaren indizea [ikastegia].	Goi muga: 5.0 Behe muga: 3.5	Enpresarekiko Harremanen Zuzendariorde
9. Enpresa kopurua Enplegua eta Enpresak Aurkezteko Jardunaldian [ikastegia].	Goi muga: 60.0 Behe muga: 30.0	Enpresarekiko Harremanen Zuzendariorde
10. Etorritako ikasleak, guztira [graduak eta masterrak, UPV/EHU].	G: Goi muga: 30.0 – 5.0 G: Behe muga: 10.0 – 5.0 M: Goi muga: 100.0 – 5.0 M: Behe muga: 40.0 – 0.0	Nazioarteko Harremanen Zuzendariorde
11. Bidalitako ikasleak, guztira [graduak eta masterrak, UPV/EHU].	G: Goi muga: 30.0 G: Behe muga: 0.0 Goi muga: 50.0 – 5.0 Behe muga: 15.0 - 1.0	Nazioarteko Harremanen Zuzendariorde
12. Eskolak ingelesez emateko akreditatutako irakasle-ikertzaile kopurua [ikastegia]	Goi muga: 200.0 Behe muga: 150.0	Irakaskuntza Plangintzako Zuzendariorde

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

13. Ingelesez eskainitako kreditu kopurua [ikastegia].	Goi muga: 350.0 Behe muga: 200.0	Irakaskuntza Plangintzako Zuzendariordetza
14. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan euskara hutsez eginiko aurkezpenen % (alde batera utzirik elebidunak).	Goi muga: 60.0 Behe muga: 30.0	Ikasleen Zuzendariordetza
15. Euskaraz eginiko GRAL eta MALen % [ikastegia].	G: Goi muga: 50.00 G: Behe muga: 10.00 M: Goi muga: 50.00 M: Behe muga: 30.00	Akademia Antolakuntzako Zuzendariordetza (Graduak) / Graduondokoaren Koordinazio Zuzendariordetza

7.2. AE2: IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

Adierazleak	Mugak	Arduradunak
16. Ikastegiko lanaldi osoko irakasle-ikertzaile doktoeen % [UPV/EHU].	Goi muga: 90.0 Behe muga: 70.0	Zuzendaria
17. Seiurteko kopurua [graduak eta masterrak, UPV/EHU].	G: Goi muga: 210.0 – 15.0 G: Behe muga: 140.0 – 5.0 M: Goi muga: 110.0 – 10.0 M: Behe muga: 80.0 – 5.0	Kalitate Zuzendariordetza
18. Enpresa Gela kopurua [ikastegia].	Goi muga: 10.0 Behe muga: 8.0	Enpresarekiko Harremanen Zuzendariordetza
19. Eskolan egoitza duen ikertalde kopurua [Ikastegia, ikus web orria:	Goi muga: 50.0 Behe muga: 20.0	Kalitate Zuzendariordetza

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

https://www.ehu.eus/es/web/bilboko-ingeniaritza-eskola/investigación].		
20. Hedabideetan informazio positiboa duen argitalpen kopurua [ikastegia].	Goi muga: 225.0 Behe muga: 175.0	IKTen Zuzendariorde

7.3. AE3: KULTURA ETA GIZARTEA

Adierazleak	Mugak	Arduradunak
21. Ikasleen Kontseiluak eta Ikasleen Elkarteek eskolan antolatutako jarduera ez-akademiko kopurua [ikastegia]	Goi muga: 30.0 Behe muga: 20.0	Ikasleen Zuzendariorde
22. Web orriaren bisita kopurua [ikastegia].	Goi muga: 1.000.000 Behe muga: 500.000	IKTen Zuzendariorde
23. Material kontsumoari loturiko ingurumen helburuen betetze mailaren % [ikastegia].	Goi muga: 80.0 Behe muga: 50.0	Kalitate Zuzendariorde
24. Baliabide kontsumoari loturiko ingurumen helburuen betetze mailaren % [ikastegia].	Goi muga: 60.0 Behe muga: 40.0	Kalitate Zuzendariorde
25. Genero berdintasunari begira eskolan eginiko ekintza kopurua [ikastegia].	Goi muga: 4.0 Behe muga: 1.0	Kalitate Zuzendariorde

7.4. AE4: PERTSONAK

Adierazleak	Mugak	Arduradunak
26. Eskolaren Komunikazio Planaren berrikuspen kopurua [ikastegia].	Goi muga: 2.0 Behe muga: 1.0	Kalitate Zuzendariordetza
27. Eskolako ikasleei, AZPko langileei eta irakasle-ikertzaileei eginiko inkesta mota kopurua	Goi muga: 10.0 Behe muga: 5.0	Kalitate Zuzendariordetza
28. Ikasle berrien harrera programarekiko gogobetetze maila [ikastegia].	Goi muga: 8.0 Behe muga: 7.0	Ikasleen Zuzendariordetza
29. Eskolako AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen aitortza ekitaldi kopurua: AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen Harrera Jardunaldia, Kalitatea Aitortzeko eta Bultzatzeko Jardunaldia, eta erretiratuei eta 25 urte daramatzatenei eginiko omenaldiak [ikastegia].	Goi muga: 5.0 Behe muga: 2.0	Kalitate Zuzendariordetza

7.5. AE5: GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

Adierazleak	Mugak	Arduradunak
30. Etengabeko hobekuntzarako "ikasleak/AZP/IRI" lantalde mistoen kopurua [ikastegia].	Goi muga: 7.0 Behe muga: 1.0	Kalitate Zuzendariordetza
31. Urtean eginiko simulakro kopurua [ikastegia].	Goi muga: 3.0 Behe muga: 3.0	Zuzendaria

BIE/EIB Plan Estrategikoa 2022-2025

32. Eskolarentzat Bikain ziurtagiria lortzea [ikastegia]	Goi muga: 3.0 Behe muga: 0.0	Zuzendaria
---	---------------------------------	------------